

Saharako haurrak hartzeko

Izen-ematea zabalik da ▶ 2



Bertsorik gabeko antzerkia eta sega apustua prestatu dute Anoetan astebururako

BI SAIOAK ▶ Ostiral gauean izango da antzerkia eta larunbat eguerdian, sega apustua

HERRIA ▶ Herritarrek prestatutako ekitaldiak dira, festa alternatiboen egitarauaren barruan ▶ 4



Entseguko irudi bat. I.GARCIA



Gipuzkoako Bertso Eskolen I. Eguna egingo dute Gurean hilaren 28an

VILLABONA ▶ Gipuzkoako Bertso Eskolen I. Eguna egingo dute hilaren 28an Villabonako Gurea antzokian, 35 bertso eskole-tako ikasleak elkartuz. Argazkian, Bertsolari Elkarte, Udaleko eta bertso eskoletako ordezkariak kartelarekin. HITZA ▶ 5

IBARRA ▶

Herriaren erabakia «aintzat hartzea» eskatu du Uztak

Arau subsidiarioen tramitazioa gelditu eta herri galdeketa egitea nahi du ▶ 6

hitza

lagunen
txokoa

'Lagun ezazu
HITZA laguntzen'

- ▶ HITZA laguntzen duten harpidedunen artean **IBARRAKO GARAGARDO FESTAN** 8 afari eder zozketatuko ditugu

laguntzaille: **hitza**

2005eko maiatzaren 19, 20, 21 eta 22a
18:00tatik aurrera zabalik

Jaki tipikoak
20 garagardo mota
+ 5 KALIMOTXO mota aukeran

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

GIZARTEA ▶



Saharako umeak, iazko abuztuan, Ibarra San Bartolome jaietan, danborrarietz jantzita eta Saharako banderarekin. HITZA

Etxean bezala sentiarazteko

Saharako haurrak udan etxean hartzeko izen-ematea zabalik da; haien egoera hobetzea eta bi herrien arteko harremanak sustatzea du xede programak

LEIRE MONTES

«Inoiz laguntzarik behar izan badute, orain eman behar zaie. Izan ere, bere kanpamenduetako egoera okertu egin da. Saharako neska-mutikoei aukera bat eskaini behar zaie uztaile eta abuzturako».

1996. urtetik, martxan da Saharako haurren harrera programa. Saharako Herriaren Adiskideen elkarteek, eskualdearen kasuan Tolosaldea Sahararekin elkarrekin, eta udalek eramanen dute aurrera, Euskal Autonomia Erkidegoan sahararrek dituzten ordezkariekin lankidetzan. «Tindufeko (Aljeria) errefuxiatu sahararren kanpamenduetan bizi diren 7-12 urte bitarteko neska-mutikak uztailean eta abuztuan hemengo familiek etxeko bat gehiago bezala hartzeko aukera» eskaintzen du programak honak.

Haurrak «desertuko tenperatura altuetatik, eta begi, hortz, eztarri eta belarrietan

Sufrimenduari, irribarra

Sahararrek pairatu duten sufrimendua ikaragarria da. 30 urte pasatu dira jada beren herritik kanporatuak izan zirela; orduetik, Tindufeko (Aljeria) basamortu inguruan bizi dira, errefuxiatu kanpamenduetan. 1975ean, hain zuzen ere, Espainiak, Marokok eta Mauritaniak hiruko akordioa sinatu zuten Madrilan. Akordioaren ondorioz, lurraldea Marokok eta Mauritaniak hartu zuten mende. Urrian marokoarren Ibilaldi Berdea hasi zen, eta jarraian marokoarren eta mauritaniarren inbasio militarra. Horren ondorioz, Saharako herritar zibilen ihesa etorri zen, 15 urteko gerra, eta erreferendumaren etengabeko atzerapena.

Familia guztiek dute zer kontatu: gerran hildako anai-arrebak, Marokoko kartzeletan hildako gurasoak —hil eta

handik hamar urtera jakinarazten zaie heriotza sentitarkoei...—, seme-alabak okupatutako lurraldetan eta amak errefuxiatu eremuetan, ama ezagutzen ez duten seme-alabak... «Edonori olio pinportak ataraziko lizikiokeen historiari» dira guztiak; «eta, era berean, lotsarazten gaituztenak». Izan ere, arazo horiek guztiak nazioartearen onepenerekin ari dira gertatzen.

Hainbeste sufritu arren, herri indartsua eta adeitsua dira sahararrak. Kanpamenduetara joaten den edonork herri jator batekin egingo du topo. Oso jende abegitsua da, esku-zabala, daukana ematen duena, harro sentitzen dena, eta borrokatzen nekatzen ez dena. Baldintza penagarrietan egonda ere, gizarte bat egituratzeko gauza izan da Saharako herria. ◀

horrenbeste kalte egiten dieten hondar ekaitzetatik ateratzea» du helburu harrera programak. Era berean, haurrei osasun arazoak antzemateko edo sendatzeko azterketa medikuak egitea du xede ekimenak. Baita Saharako umeek izan ditzaketen elikadura ga-beziei aurre egitea ere.

Gainera, «bi herrien arteko kultur harremanak mantendu eta sakondu» nahi dira harrera programa honen bitartez. «Familien arteko adiskidetasuna eta kooperazioa eratzea eta sendotzea» ere gakotzat jotzen dute sustatzaileek, udako hila-betik haratago «bizitzen jarraitzen laguntzeko». Saharako errefuxiatuen egoeraz jabetzea bilatzen du ekimenak; «hala, gobernuei duten erantzukizuna bere gain hartzeko presionatu ahal izango diote herritarrek, Nazio Batuen Erakundeak (NBE) dekretuz agintutako eta orain arte egin nahi ez den erreferenduma egin dadin eskatzeko».

IZENA EMATEKO ▶

Dagoeneko zenbait familiak eman dute izena uztailean eta abuztuan Saharako haurrak beren etxean hartzeko. Baina oraindik ere aukera badagoela azaldu dute antolatzaileek. Interesa dutenek hona jo behar dute:

Alegia. Etzi, ostirala, amaituko da eskariak egiteko epea, Udal Gizarte Zerbitzuetan (Enparantza nagusia. 943 65 47 68).

Ibarra. Informazio gehiago jasotzeko eta izena emateko Udal Gizarte Zerbitzuen sailera (San Bartolome plaza) jo behar da, ostirala baino lehen.

Tolosa. Udal Gizarte Zerbitzuetako departamenduarekin jarri behar da harremanetan (Plaza Zaharra. 943 69 74 60), hilaren 31 baino lehen.

Tolosaldea Sahararekin elkarrekin. Edozein zalantza argitu edo informazioa jaso nahi duenak 645 71 07 89ra dei dezake.



Saharako bi haur. HITZA

Udalen diru laguntza

Saharako haurrak uztailean eta abuztuan etxean hartzeko programan udalek hartzen dituzte bere gain zenbait gastu. Besteak beste, bidaiari gastuak ordaindu egiten dituzte, eta pertsona bat kontratatzen dute. Pertsona horrek koordinazio lanak egiten ditu, azterketa medikuetara joaten da gaztetxoekin, familiakoekin harremanetan egoten da, eta sor daitezkeen zalantzei erantzuten die. Bestalde, Saharako begirale bat ere izango da haurrekin.

Pertsona bakarrek familiak, seme-alabarik dituztenak, seme-alabarik gabekoak, jubilatutako... Edonork har ditzake haurrak etxean. Antolatzaileen esanetan, «Saharako herriari laguntzeko gogoia izatea» da baldintza bakarra. Interesa duenak Tolosaldeko hainbat udaletxetan jasoko du programaren inguruko informazio gehiago, eta umeak etxean hartzeko izena eman. Haurrak hartzeko prest dauden familiak «inoiz baino beharrezkoagoak» dira orain.



FORTUNA K.E.

65. Mendi Ibilaldia
2005eko ekainaren 5a

Izen ematea:

© 943 21 49 00 • info@cdfortuna.com • www.cdfortuna

MENDI-ALDE

Eguneroko menuak eta karta
Bataioak, Jaunartzeak,...

Jatetxea

San Esteban auzoa, 39 • © 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA

KULTURA ▶

Haurren txotxongilo antzerkirako idazlan lehiaketa, antolatuta

TEE-k eta Tolosa 750. Urteurrena Fundazioak abiarazi dute; irailaren 1a baino lehen aurkeztu behar dira sormen lanak



Saria jasotzen duen idazlana eszenaratu egingo dute. I. ETXEBESTE

IRATXE ETXEBESTE

TEE, Tolosako Turismo Ekinbide Etxeak, Titirijai Nazioarteko Txotxongilo Jaialdiaren antolatzaileak, eta Tolosa 750. Urteurrena Fundazioak haurren txotxongilo antzerkirako idazlanen lehiaketa deialdia egin dute. Umeei zuzendutakoa izan behar du lanak, bai, baina idazleak beharrezko du 18 urte beteta izatea lehiaketara aurkezteko, eta idazlanak euskaraz edo gaztelaniaz idatzita aurkeztu behar dira. Era berean, antolatzaileek adierazi dute idazlanek «orjinalak, aurretik sekula argitaratu gabeak eta beste inolako eta inongo literatura lehiaketaren batean saritu gabeak» izan behar dutela: «Epaia eman arte baldintza horiek guztiak bete behar dituzte, eta ez dira onartuko inongo taldek —profesional nahiz ez profesional— estreinatutako dituztenak». Idazlanaren egileak aitoritu egin behar du, idatziz eta sinatuta, aurkeztutako lanak baldintza horiek guztiak betetzen dituela, eta inolako itzulpenik eta egokitzapenik ez dute antolatzaileek onartuko.

Idazlan irabazlea erabakitzea eta kartazal itxiaren irakurketza Tolosan egingo dituzte, Titirijai 2005 Nazioarteko Txotxongilo Jaialdiaren barruan. Era berean, «antolaketa taldeak konpromisoa hartzen du idazlan irabazlea eszenaratzeko txotxongilo antzeppenetan ospea duen talderen baten eskutik». Horixe adierazi dute antolatzaileek, eta estreinaldia herrian izango litzatekeela diote, Titirijai 2006 Nazioarteko Jaialdiaren baitan.

Lehiaketan parte hartu bai, baina saria lortzen ez duten idazlanen egileek edo haiek baimendutakoek hiru hilabete epearen barruan, epaia ematen denetik zebaitzen hasita, lanak jasotzeko. Izan ere, antolatzaileek berek ez dituzte aurkeztutako idazlanak itzuliko. «Epe hori amaitzen denean, jaso ez diren aleak suntsitu egingo ditugu».

Oinarrietan aurreikusten ez dena, bestalde, antolatzaileek erabakiko dutela iragarri dute.

neurrikoa izan behar du: 45 eta 60 minutu bitartekoa.

EPAIMAHAIA

Izendapena. Epaimahaia antolatzaileek izendatuko dute, eta bere epaia apelaezina izango da.

Lanak. Oinarri hauek xedatzen dutenaren arabera, saritutako idazlana hautatzeko irizpideak hurrengoak izango dira: literatur kalitatea, sormena, orijinaltasuna eta eszenaratzeko aukera.

SARIA

Zenbatekoa. Saria bakarra izango da: 4.000 euro, hain zuzen ere. Sariaren eraginez sortzen diren betebeharrak fiskalak saria irabazi duenaren ardura izango dira. Lehiaketa hutsik uztea ere erabaki lezake epaimahaia.

Idazlana. Saritutako idazlana TEE-ren eskutan geratuko da, argitaratzeko edota eszenaratzeko urtebeteko epearen barruan, epaiaren datatik zenbatzen hasita. Argitalpena hiru hizkuntzatan egingo da: euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez.

ARGIBIDEA

Parte-hartzea. Lehiaketan parte hartzeak esan nahi du oinarri horiek onartzen direla.

OINARRIAK ▶

I. Txotxongilo Lehiaketara aurkezteko honakoak dira bete beharreko oinarriak:

AURKEZPENEA

Nola. Idazlanaren 5 ale aurkeztu behar dira, DIN A-4 orritan, mekanografiatua tarte bikoitzarekin eta orriaren alde batean. Sinadurarik gabe, eta lelopean. Goiburukoan idazlanaren titulua eta leloa besterik ez dira idatziko.

▶ Idazlanarekin batera kartazal itxia bidali behar da. Kartazal itxiaren gainean obraren izena eta leloa jarri behar dira; eta kartazal itxiaren barruan, izena, helbidea eta egilearen curriculum labur bat eta bere NANaren edo pasaportearen fotokopia.

Noiz. Idazlanak 2005eko irailaren 1a baino lehen aurkeztu behar dira. Postaz bidaliz gero, aipatutako dataz geroztikako zigilu-markak dituztenak ez dira onartuko.

Non. Idazlanak, koadernatuta, honako helbide honetara bidali behar dira: Tolosako Turismo Ekinbide Etxea. Titirijai 2005. Emeterio Arrese, 2. (20400). Tolosa.

OBRA

Gaia. Idazlanaren gaia librea da.

Iraupena. Obraren iraupenak haurrentzako antzerki baten

ARETO FUTBOLA ▶

Laskorainek ez du jokatu, baina hiru puntu lortuta

Laskorain areto futbol taldeak ez du asteburuan zuen neurketa jokatzetik izan, Arabako Lo + MRW taldeko jokalariek ez zirelako hitzordura agertu. Tolosarrek adierazi dutenez, aurkariek ez zuten taldea osatzea lortu, eta horregatik egin zuten huts. Ondorioz, partidua jokatu gabe geratu dira, baina hiru puntu gehiago izango dituzte Egizabalen mutilek sailkapen orokorrean, eta baliteke arabarrei isuna jartzea, arauak ez betetzeagatik.

GIZARTEA ▶

Elikadurari buruz hitzaldia izango da Kultur Etxean

Prosalus, Gipuzkoako Caritas eta Mugarik Gabeko Albaitariak erakundeek, Elikatzeko eskubidea izeneko sentsibilizazio kanpaina jarri dute abian, eta horrekin lotuta hitzaldia eskainiko dute gaur Kultur Etxean. *Soberania alimentaria* gai hartuta, elikadurari buruz ariko da Carlota Merchan, Madrilgo Prosalus erakundeak kidea 19:30etik aurrera. Tolosako Udaleko Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuaren laguntza jaso du ekimenak.

GIZARTEA ▶

APPETOL-en urteko batzarrerako deia

APPETOL, Tolosaldeko Aurrejubilatua, Pentsionista eta Emakume Alargunen Elkarteak ohiko batzar orokorrera deitu ditu elkarte-ko bazkideak biharko. Tolosako Kultur Etxean izango da bilkura 17:00etan hasita. Zuzendaritza batzordeak zuzendutako eman dituzten jorratuko dituzten gaien inguruan: lehendakariaren harrera eta ongietorria; informazio ekonomikoa eta kontuen egoera; «gure eskaeren egoera: parekatzea, koefiziente murriztaileak kentzea, konstituzio-contrakotasuna, SOVI, alarguntasun pentsioa, ordezkaritza...»; gestioak Foru Ogasunean PFEZaren gainean; CEPYP aurrejubilatua eta pentsionisten konfederazio estatala; Europako Batasunarekin harremanak eta zuzendaritza batzordeko kideen berrikuntza partziala, estatutuek diotenaren arabera izango dira. «Une honen garrantzia eta gure eskaeren konponbidea ikusteko sortzen ari diren egoera berriak kontuan harturik, batzarrean parte hartzeko eskatzen dizugu», diote.

HEZKUNTZA ▶

DBHko titulu bila pasatu daitezke Laskorainekoak

2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetan DBH4. mailako ikasketak Laskorain ikastolan amaitu zituzten ikasleak DBHko titulu bila pasatu daitezkeela adierazi dute ikastolako arduradunek, honezkeo prest dituztelako titulu guztiak. Goizez edo arratsaldez, bulego orduetan joan beharko dute ikasle ohiek ikastolako idazkaritzara, eta DBHko titulua jasotzeko aukera izango dute.

HEZKUNTZA ▶

Ate irekiak Tolosaldea LH Institutuan

Tolosaldea Goi Mailako LH Institutuan Ate Irekien Eguna antolatuta du gaurko. Bertako arduradunek adierazitakoaren arabera, arratsaldeaz, 15:00etatik 20:00etara izango da hori, eta edonork hartu ahal izango du parte. Instalazioak ikusteko, eskaintza akademikoa ezagutzeko eta ikastaroak ikusteko eta eza-gutzeko aukera izango dute. Ikasleen etorkizuna «ziur-tu» behar dela uste dute.

GIZARTEA ▶

Tolosa Kup-eko asteburuko emaitzak

Asteburu honetan emaitza hauek izan dira Tolosa Kup-en: larunbatean Ape Skin 1913 0-Ikatza 3; Los Nomos 3-Ieltxu 2; Vendo Papamovil 3-Samberoak 2; The Patxis 5-Pub Nahien 0; Oargi 1-Orbela 3; Txanpa 1-Bikutz 0; Transporte Escolar 5-Goxuak gozo 4; Egunkaria aurrera 0-Amarotz 3; River Plate 6-Saiatzegatik 3; Ttamtogorri 1-Aralar Kirolak 0; eta igandean Sinsalus 3-Harry Potte 3; Club Kung Fu 1-Gogugol 5; The Trankixx 1-Amets jate-txea 0; Pupo 9-Cirsas 1; Txoko txiki 9-Irazki 3; Tolosa Maroc 2-Vespa Boys 5; Basajaunak 3-Itaie 1; Drink in team 3-Eguzki 6; Fumjori 1-Lekukik 2; Ekaitz 3-Aqui hay tomate 1.

GUTUN@K ▶



Gora EHAK eta eutsi goiari!

Adunako 2 herritar maiatzaren 13an, ostirala, arratsaldeko 19:30ean geratu ginen, herri inguruan zegoen hauteskundeetako EHAKren aldeko propaganda biltzeko asmoz, baina... zorte txarra! PNVren polizia (Ertzaintza) azaldu zitzaigun. «¿Que haces?» Ba... hauteskundeak igaro ondoren kartelak biltzen. «Carnet de identidad, y el del compañero,

documentacion del vehiculo», eta abar...

Ordu erdi baten ondoren ez zekiten nola izorrratu eta propagandarako erabilitako kenduta geneuzkan 2 burni leku berean utziarazi zizkiguten, kotxetik metro erdi bat atzera ateratzen zirelako erratza bezalako 2 burni, eta ez omen geneuzkan horrela eramaterik. Gure asmoa erabilitako traste guztiak zeuden tokietatik biltzea zen. Hori galerazteaz aparte... ez al daukate beste zer eginek? 100 metro aurrerago istripu bat ze-

goen. Ez al zen beraien eginbeharrak istripu hura ondo seinalizatzea?... Eurria ari zuen ordea.

Guk bero-beroan burniak utzi, beraiek hala aginduz eta herrira igo ginen. Hasitako lanak bukatu asmoz, hartu furgoneta eta lehengo lekura hurbildu ginenean han zeuden bazterrean gordeta. Sartu 2 burniak furgonetara eta jarraitu genuen, baina ez zeuden gustura eta jarraitu egin gintuzten beste kilometro batean atzetik, poligono aldera desbi-

deratu ginenean piruloak piztu eta bazterrerera. Lotsagarria!

Berriro ere miaketak eta abar. «*Podeis continuar*» zioten ertzainek, ez bai zeukaten nola izorrratu guri. Ertzaintzaren lana al da norberaren herriko hauteskundeetako propaganda biltzearen aurka egitea? Bai?

Ah, hori bai, oztopo guztien gainetik lortu genuen herria txukuntzea. Gora EHAK eta eutsi goiari!!!

IKER ITURRIOZ ETA IÑAKI LEKUONA ▶ ADUNA

VILLABONA-ZIZURKIL ▶

Pultsularien emaitza oso onak lurralde mailan

Pasatu den larunbatean, Olaederra kiroldegian Halterofiliako Gipuzkoako Txapelketa egin zen. Danena-Olaederra halterofilia taldeko pultsulariek parte hatu zuten oso emaitza onak lortuz. 56 kiloko mailan: 1. postua, Igor Sasiain; 2. postua, Jon Lopez eta 3. postua, Iker Hernandez; 62 kiloko mailan: 1. postua, Ekaitz Kortajarena; 69 kiloko mailan: 1. postua, Jon Sasiain; 4. postua: Angel Martin; 77 kiloko mailan: 4. postua Jon Ander Iriarte, 5. postua Mikel Quintana; 85 kilo kategorian: 1. postua Teddy Martinez; 94 kiloko mailan: 1. postua Gorka Lopez, 2. postua Daniel Legorburu. Sailkapen orokorrean, kategori guztiak kontuan izanda: 1. postua, Ekaitz Kortajarena; 2. postua Teddy Martinez eta 3. postua Jon Sasiain. Gainera, Euskadiko Sub-15 mailan zenbait marka hobetu zituzten Danena-Olaederrakoek.

IRURA ▶

Bazkari herrikoa egingo dute larunbatean

Larunbatean, herri bazkaria egingo dute Gazte Alaiak elkartean. 14:00etan hasiko da bazkaria eta famili artekoa izatea nahi dute antolatzaileek. Bi menu ezberdin izango dira: bat helduentzat (15 euro) eta bestea haurrentzat (9 euro). Helduek legatza arraultz-irinetan, oilaskoa burruntzian, bizkotxo eta izozkia izango dute. Gazte txoek, kroketa eta txibi frijituak, oilaskoa burruntzian, bizkotxo eta izozkia izango dute. Txartelak erosteko epea bihar arratsaldean bukatuko da eta Estankoen edo Trinketean eros daitezke.

ANOETA ▶ HERRIKO JAIK

Herritarrek prestatutako ikuskizunak

Bertsorik gabeko antzerkia ostiralean eta sega apustua larunbatean

IMANOL GARCIA

Herriko festen hasieran, festa alternatiboan egitarauan, herritarrek protagonista direla, bi ekitaldi egingo dira: bertsorik gabeko antzerkia eta sega apustua. Ostiral gauean egingo da frontoian, 22:30ean hasita, bertsorik gabeko antzerkia, 20 bat lagunentzako partaidetzarekin. Aurten ezin izan dituzte bertsoak garai prestatu eta horregatik deitu diote bertsorik gabeko antzerkia.

Lau urtetan bertsorik gabeko antzerkia egin ondoren, 2004an etenaldia izan zen. «Ordubeteko hutsunea laburra izan daiteke asbetetoko programan, baina bertsorik gabeko antzerkiak hori baino hutsune handiagoa utzi zuen», azaltzen dute antolatzaileek.

«Bertsorik gabeko antzerkiarekin, anoetaren parte-hartzea sustatzen duen ekintza garrantzitsuenetarikoa galdu genuelakoan gaude. Eta herritarren parte-hartzea gaitzea, asko gaitzea da». Horrela, lau urteko lanak sortu zuen lankidetzak berreskuratu nahi izan dute aurten, eta «ortu ere lortu dugula uste dugu».

Ama begira zazu antzezlanaren ezagunaren esketx batzuk egingo dituzte, istorioak Anoetara hurbilduz. Jende asko espero dute, frontoia betetzera. «Festetako lehen ekitaldia da eta ikusmina sortzen du», azaldu du Gorka Otxoa-Aizpuruak, antolatzaileetako batek. Aipatzekoa da ere Loatzo musika eskolako ikasleek ere parte hartuko dutela, esketx batzue-



Antzerkian ariko diren bi herritar entseguaren une batean. I. GARCIA

tako musika eginez eta ekitaldiaren hasierako abestia interpretatuz.

Sega apustua larunbatean

Larunbatean, berriz sega apustua antolatu dute. 30 bat lagun izango dira ekitaldi honetan parte hartuko dutenak. 10:00etan segalariekin kalejira egingo dute herriko plazatik Argindegi atzeko zelaira. Ondoren hasiko da sega apustua.

Hiru talde ariko dira, bakoitza bere zorrotaille eta belar-biltzaileekin. Egoitz Luisa eta Txomin Garmendiaren taldean, zorrotaillea Bixente Garmendia izango da eta belar-bil-

tzaileak, Xabier Otaegi, Ainhoa Artola, Iñigo Gonzalez, Jon Otegi, Iñigo Otaegi eta Josu Agirrebabala. Taldearen epailea Joxe Mari Urkola izango da. Igor Urkola eta Aitzol Esnaolaren taldean: zorrotaillea, Enrike Esnaola; belar-biltzaileak, Josu Zumeta, Anaje Otaegi, Iñigo Iñurrita, Beñat Luluaga, Mikel Aierbe eta Joxe Martin Anton. Epailea, Periko Peñagarikano. Joakin Garmendia eta Iñigo Iturrioren taldean: zorrotaillea, Iñaxio Sarasola; belar-biltzaileak, Joxe Mari Zubeldia, Joxe Mari Iñurrita, Patxi Etxaniz, Jexux Iturrioz, Joxe Mari Gorostidi, Juan Ugartemendia. Epaile lanetan, Manuel Luluaga.

iragarki laburrak ▶



Abaltzisketa. Sei etxe atxiki, sukaldea, egongela, bainugela eta terrazarekin, lehen solairuan, hiru logela, batek bainua du, bainugela eta bi terraza bigarren solairuan, bi autorentzako garajea eta bokoa beheko solairuan.

Anoeta. Duplex etxebizitza estreinatzeko salgai. 4 logela, 2 bainugela, egongela, sukaldea, terraza eta garajea aukeran..

Belautza. 225 m²-ko pabilioia alokairuan eskaintzen da. Prestatua.

Bidanía. Bi familientzat egokituriko

sei etxe salgai. Garajea, sukaldea, egongela, bainugela eta terrazarekin lehenengo solairuan. Hiru logela, bainugela eta terrazarekin bigarren solairuan.

Donostia. Gros. 70 m²-ko duplex zoragarria salgai Sagues zonaldean.

Berritua.

Donostia. Aiete Muntto, 70 m²-ko etxebizitza, kanpoaldera, erdiberritua, lorategidun zonalde zabalak.

Errioxoa. Hormilla, Naxeratik 3 kilometrotara, etxe atxikia lorategi eta igerilekuarekin urbanizazioan.

Ibarra. 85 m²-ko etxebizitza salgai.

Kanpoaldera. Bizitzera sartzeko.

Garajea aukeran.

Lasarte. Hirugarren solairuan dagoen eta 65 m² erabilgarri dituen etxebizitza salgai Oztaran kalean.

Kanpoaldera.

Lizartza. Eraikuntza berriko 14.000 m²-ko pabilioiak salgai, 350 m²-tik aurrera.

Tolosa. Iurren, 98 m²-ko etxebizitza kanpoaldera, eguzkitsua, igogailuarekin eta trastelekuarekin. **Marradun garajea.**

Tolosa. Santa Klara kalean, 90 m²

dituen etxebizitza berritua salgai.

Atzealdean baratz propioarekin.

Tolosa. Gernikako Arbolan, 155 m²-ko etxebizitza salgai, kanpoaldera, berritzeko.

Tolosa. Gudari kalean, Samaniego

kalearekin izikinean, 110 m²-ko etxebizitza salgai. Kanpoaldera, eta oso eguzkitsua. Igogailuarekin.

Berritzeko premia.

Urretxu. 780 m²-ko pabilioia, 300 m²-ko solairuartearekin. Dena jarrita. Erakusketa zabalarekin.

ALEGIA ▶ GIZARTEA

‘Epaiketa duina’ eskatu dute Paco Larrañagarentzat

Gutxieneko bermeak bete ez direla-eta laguntza eskatu du gazteak kartzelatik

NOELIA LATABURU

Prozesua «lehengoan» bada ere, bada berririk Paco gaztearen kasuan. Izan ere, kartzelatik grabaturiko bideo bat zabaldu berri du Larrañaga familiak, non bere errugabetasunaren alde egin eta agintariaren laguntza eskatzen duen.

«Esperantza guztiak Espainiako Gobernuaren eta Europako Batasunaren eraginean ditu jarrita Pacok eta horrek urdintzen du bere zeru iluna». Horrela deskribatu du Paco Larrañaga alegiarrak bere ilobaren egoera. Beldurrez eta esperantzaz. Gaztearen familiak mugimendu politiko eta diplomatikoak bultzatu ditu, Filipinetako justiziak Paco Larrañaga 27 urteko gaztea kartzelan sartu zuenetik, duela zortzi urte, Marijoy eta Jaqueline Chiong ahizpen bahiketa, bortxaketa eta heriotza egotzita. Prozesua hasi zenetik, hutsune handiak izan dira Filipinetako justiziaren aldetik, «gutxieneko bermeak apurtu baitira».

Instantziako Auzitegiak epai-tu zuten gazte euskalduna lehen aldiz —biziarteko kartzelazigorra ezarri— bere lekuko-

en adierazpenak arbuatuz. 2004.ean, berriz, Auzitegi Gorenak heriotz-zigorra ezarri zion. Halaber, defentsak aurkeztutako orain arteko helegiteak baztertu ditu, bai eta Fair Trials Abroad, Madril,artzelona (Espainia) eta Euskal Autonomia Erkidegoak aurkeztutakoak ere. Orain berriz hausnartzeko eskatzen duen mozioaren aurrean Auzitegi Gorenak emango duen erantzunaren zai dira. Lau urtetako epea dago honen erantzuna jasotzeko. «Ez dugu barkabertasun nahi, epaiketa duina baizik», adierazi du osabak. «Orain da aukera eta gure indar guztiak honetan jarri behar ditugu», gaineratu du.

«Oso sendo ikusi dugu»

Bestalde, Moragas (PPko nazioarteko harremanen ordezkaria) eta Anasagasti izan dira kartzelan Larrañaga bisitatzen eta euskal senatariaren esanetan, «oso sendo ikusi dugu». Zapatero, Espainiako presidentea, eta Ibarretxe ere eskutitzi bana bidali dizkiote Gloria Matcapagal Filipinetako presidentari epaiketa duina eskatuz.



Paco Larrañaga, zabaldu berri den bideoko irudi batean. HITZA

Preso baten hitzak

Minutu bat inguru irauten du Michael Collins zinegileak kartzelan Paco Larrañagari grabatu dion bideo grabaketak. Hauek dira, besteak beste, bere adierazpenak:

«Paco Larrañaga naiz, espainiarra naiz, 8 urte daramatzat Filipinetako kartzela batean eta errugabea naiz. Heriotz zigorra egotzi didate burutu ez dudan krimen baten ondorioz. Ni Manilan nengoen kri-

mena jazo zenean, Cebu uhar-tearen 300 kilometroetara, zehazki (...)

Mesedez, entzun iezadazue, asko sentitzen dut Chiong familiari gertatu zitzaiona, baina nik ez dut bere bi alabei pasa zitzaienarekin zerikusirik, errugabea naiz. Laguntza eskatu nahi diet Espainiako Gobernuari eta Europako Batasunari. Mesedez, ez iezadazue bakarrik utzi». ◀

IBARRA ▶

Alurr, herriko dantzaren historia biltzen

Ibarrako Alurr dantza taldeak 10 urte beteko ditu aurtten. Hori dela eta, material biltzeta ari da egiten urrian egingo den Kultur Asteko ekitaldietarako. Aspaldiko materiala topatu dutenez, Ibarrako dantzaren historia egitea pentsatu dute, beraz, era honetako materiala duenari eta Egunkariaren aldeko ekitaldiaren bideo-grabaketa duenari deia egiten diete 635 757 048 telefonoan Elirekin harremanetan jartzeta.

ALTZO ▶

Eriz Magoaren haurrentzako ikuskizuna

Gaur 17:00etan Eriz Magoaren haurrentzako ikuskizuna izango da Ertotxen. Fantasia eta errealitatea uztartuko dituen emaldia eskainiko du magoak, bereziki 4 eta 11 urte bitarteko haurrei zuzenduta izango da. Udalak heldu eta haurrak animatu nahi ditu emanaldiaz gozatzeko.

ALEGIA ▶

Bake epailearen aukeraketa prozesua abian

Lau urtez behin egiten den bake epailearen aukeraketa prozesua martxan da dagoneko izena emateko epea zabalik baitago apirilaren 30etik. Interesa duen guztiak Alegiako udaletxean eman beharko du izena maiatzaren 18a baino lehen. Prozesuari buruzko informazio gehiago nahi duenarentzat, udaletxe-ko bulegoetan bertan eskuratu ahal izango du.

BELAUNTZA ▶

Bainuetxera joateko izen-ematea zabalik

Maiatzaren 28an Zumaiaiko Zelai Talasoterapiara joateko izen-ematea Belauntzako Kultur Etxean egin beharko da, 20 euroren truke, etzi baino lehen, prezioaren barruan bidaia, erlaxazio tratamendua eta bazkaria sartzen direlarik. Irteera 09:30ean Andreseneko bidegurutzetik aterako da.

VILLABONA ▶ KULTURA

Gipuzkoako Bertso Eskolen I. Eguna egingo dute Gurea antzokian

Hilaren 28an izango da eta 35 bertso eskoletako ikasleak bilduko ditu ekitaldiak

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Bertso Eskolen I. Eguna ospatuko dute hilaren 28an, Villabonan, «Gipuzkoako bertso eskola guztiak elkar hartu eta etorkizuneko erronkei elkarlanean aurre egiteko». Herenegun egin zuten aurkezpen ekitaldia Donostiako Koldo Mitxelena eta bertan izan ziren bertso eskoletako irakasle, ikasle, guraso, Gipuzkoako Bertsozale Elkartearen lehendakaria Felix Irazustabarrena eta Villabonako Udaleko Xabier

Zabala euskara eta Hezkuntza zinegotzia.

Gipuzkoako bertso eskolen eta Bertsozale Elkartearen arteko lanaren emaitza da ekitaldia, eta «Gipuzkoako bertso eskolen bilgune eta festa ederra izateko» helburuarekin sortu da. Antolatzaileek zortzi eta hemezortzi urte arteko berrehun ikasle biltzea dute xede, Gipuzkoako lurraldean dauden 35 bertso eskolakoak, hain zuzen «Beraien artean hobeto ezagutzeko bidea jarri nahi du bertso eskolen festa honek»



Prentsaurrekoan bertso eskolan eguna aurkeztu zutenak. HITZA

esan zuten Estitxu Eizagirrek bertso eskolako irakasleak. Hau lortzeko garraioan ere ahalegin berezia egingo da, eta bidaia doan egiteko modua jarriko zaie bertso Gipuzkoako bailara bakoitzeko.

10:00etan emango diote hasiera egunari, denak Villabonako plazan elkartuko direla-

rik. Ondoren, jolasak egingo dituzte plazan. 11:30ean jaialdia egingo da Gurea antzokian. Honen ostean bazkaria egingo dute plazan. Arratsaldean, berriaz, Anjel Mari Peñagarikano eta Nerea Elustondo bertsolarien saioaz gozatzeko aukera izango dute, marrazkilari batek lagunduta.

IBARRA ▶

Azken unean
5-4 irabazi dio
Ibarrak
Burlatari

Maila mantentzeko Burlatak datorren astean egiten duena ikusiko beharko dute

I.TERRADILLOS

Urduritasuna izan zen nagusi Ibarra areto futbol taldeak eta Burlatak Belabietan kiroldegian jokatu zuten partidan, izan ere asko zegoen jokoa. Gainera, urduritasun honek azken unerarte iraun zuen, partidari amaiera ematen dion seinalearekin etorri baitzen Ibarri garaipena eman zion gola.

Burlatari presio gogorra eginez hasi zen Ibarra, hala ere, lehenengo minutuan gola sartu zuten burlatarrek. Ibarrak gogor jarraitu arren ez zuen atearen aurrean asmatzen. Eraitza horrekin helduko zirela atsedendira zirudienean Ustaritzek arean zegoen nahaste batez baliatuz gola egin zuen.

Bigarren zatian Ibarra dena ematera atera zen. Hirugarren minutuan jarriko zen aurretik markagailuan; Kamio alboko sake bat errematatzen saiatu zen, baina ez zuen asmatu. Bere alboan geratu zen baloia, berriro jaurti eta sare barrura sartu zen. Hiru minutu igaro zirenean Ibarrak Pradosi zuzenduriko alboko sakea egin zuen, baina atezainari iritsi zitzaion; honek galdu, Pradosen hantekara iritsi eta bultzadaxo bat nahikoa izan zen ate barruan sartzeko. 3-1 ekoa zen. Une horretatik, Burlatak erasoari gogor ekin zion eta bitartean Ibarra defentsa lanetan jarri zen burubelarrari. 30. minutuan burlatarrek bigarrena egin zuten etxeoket baloia galdu ondoren. Segituan etorriko zen ibararren laugarrena Cristianen eskutik. Zortzi minutu geratzen ziren Burlatak 4-3koa egin zuen, eta segidan berdinketaren gola etorriko zen. Azken gola, epaileak partidaren amaiera eman zuen une berean sartu zuen Cristianek; eztabaida sortu zen, baina ontzat eman zuten gola epaileek.

Beraz, orain Ibarrak maila mantentzeko duen aukera datorren astean Burlatak lortzen duen emaitzaren arabera izango da.



Gazteluko batelaren aurkezpena egin dute

GAZTELU ▶ Igandean egin zuten Gaztelun batelaren aurkezpena. «Nahiz eta herri txikia izan kirol tradizio handia du, trontzalariak, pilotariak, arraunlariak...», azaldu du taldeak. Tolosaldeko Arraun Klubean izena eman dute, eta lehendabiziko

aldia izango da Gazteluk batela duela. Helburua sanjoanetan ateratzeaz gain herriko jendea elkartzea izango da. Aurkezpenean Josune Gorostidik, txirindularitzan 3 aldiz Espainiako txapelidunak hitz egin zuen. I.TERRADILLOS

IBARRA ▶ GIZARTEA

«Herriaren erabakia
aintzat hartu behar da»

Arau subsidiarioen tramitazioa gelditzea, eztabaida foro bat sortzea eta herri galdeketa egitea proposatzen du Uztak

IÑIGO TERRADILLOS

Uzta herri plataformak Ibarra-ko arau subsidiarioen inguruan bere iritzia eman du, eta era berean, proiektuaren arabera herriaren etorkizuna nola izango den aurreikusita iradokizunak aurkeztu dituzte.

Uztak azaldu bezala Iñigo Garaialderi gizarte-hirigintza azterketa egiteko eskatu zitzaion Udaletik, «herriko errealitatea hobeto ezagutu eta horrela herritarren beharrei aurre egingo dien proposamen egoki bat egiteko». Gauzak horrela, Udaleko zinegotziek azterketaren interpretazio «malztzurra» egin dutela salatzen dute. Azterketan jasotzen denez 2012 urterako 190 etxebizitza berri behar lirateke, eta 500 etxebizitza merkaturatzea proposatzen du. Uztaren arabera, «Garaialdek jakingo balu eraiki nahi diren lur gehienak jabego bakarrekoak direla, hirigintza zamarik ez dutela eta gainera lur jabegoa ados dagoela, beraz tramitazio oztoporik ez dela izango, ez luke proposamen hori egingo». Gainera, 500 etxebizitza berri merkaturatu behar direla



Uztako kideak Udalaren proiektuaren maketaren aurrean. I.TERRADILLOS

esan, baina ez direla kontuan hartzen egingo diren gainerantzeko etxebizitza guztiak diote, ez eta Ibarran dauden 204 etxebizitza hutsak. Beraz, 900 etxebizitza berri eraikitzeak aukera zabalduko litzateke Ibarrran, eta Uztak dioenez, aurrerapenean agiriaren ez da biztanlegoaren hazkunderik aurreijabego bakarrekoak direla, hirigintza zamarik ez dutela eta gainera lur jabegoa ados dagoela, beraz tramitazio oztoporik ez dela izango, ez luke proposamen hori egingo». Gainera, 500 etxebizitza berri merkaturatu behar direla

gehitzea eta aparkaleku arazoak handitzea ekarriko du, 1.450 ibilgailu berri sartuko baitira, beraz, herri barruko arazoa areagotuko da».

Bestalde, «etxebizitza edo baserri asko bota behar diren unitateetan ez da etxebizitza babesturik egingo eta karga gutxiago dagoenetan legeak ezarritako babestutako kopuru txikiaren egingo dira, eta kopuru handi bat Udalak %50eko jabegoa duen unitatean egin nahi dira», eta honen bidez lur sail pribatuak jabeek etekin handiago ateratzen diotela lur zoruari gehitzen dute platafor-

UZTAREN
IRADOKIZUNAK ▶

- ▶ Ibarrako udal planeamenduko arau subsidiarioen tramitazioa gelditzea eskatzen dute.
- ▶ Prozesu berria hasia proposatzen dute, non herriko eragile guztiek, sindikatu eta alderdi politiko ezberdinek parte hartuko duten. Ibarrako etorkizunari buruz hitz egiteko eztabaida foro bat sortzea eskatzen dute.
- ▶ Azken erabakia ibarretan guztia izan dadin, prozesua herri kontsulta bidez amaitzea proposatzen dute.


makoek. Halaber, beraien usteetan lur guztiek berdin balio dute eta unitate guztiak orokorrean hartu beharko lirateke.

Nekazal lurren bideragarritasun eza zalantzan jartzen du Uztak, izan ere, «Zume baserriko 6.450 eta Zaldune baserriko 6.870 metro karratuak ustiapenerako errentagarri izaten jarraitzea eta aldiz, Montes baserriko 15.610 edo Arane baserriko 11.400 metro karratuak errentagarriak ez izatea zaila da sinesten; nekazal lurren bideragarritasuna zalantzan jartzeak ez dio inori lur horietan nahi duena egiteko eskubidea ematen; eskubide hori herriak ematen du, eta hori proposatzen dugu, eztabaida foro bat zabalitzea, Ibarrako etorkizunaz eztabaidatzeko eta ondoren, herri kontsulta bidez erabakia hartzeko, hau da, nolako herria nahi dugun herritar guztien artean erabakitzeko».

ARESO ▶ PILOTA

Txapela bana lortu dute Mikel Olazabalek eta Unai Onsalok

Aresoarrak Getxoko eta Errekako Txapelketen jabe dira; Elgetakoan, berriz, aurrera jarraitzen du Olazabal berak



Olazabal, ezkerrekoa, Getxoko Txapelketa irabazi zuen; Onsalok, eskuinean, Errekako Txapelketa. J. ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Aste oparoa izan da igaro berri den hau Aresoko pilotari gazteentzat. Bi txapelketatan fina-

lera iritsita, irabazi ere egin baitituzte biek hala biek: Unai Onsalok eta Mikel Olazabal dira txapelkunak.

Batak, Onsalok, larunbatean

jokatu zuen Donezteben, Erreka Txapelketako finala, Jabier Eraso iruritarra lagun zuela eta 22 eta 7 irabazi zieten Paz de Ziganda taldeko ordezkari, Ur-

tasun eta Orozi, alegia. Onsalok gustura zegoen egindako lana-rekin: «Partidu gogorra izan zen, lehiatutakoa, baina tantotak ia beti gure aldera etortzen ziren», baieztatu zion HITZARI atzo. Urtasunek defentsan ongi jokatu zuen arren, Orozek aukerako pilota asko utzi omen zizkion eta «ezkerretik zabale- ra botata, tanto mordoska egin genituen», zioen, konforme. Onsalok, irabazten duen 7-8. txapela du hau: «jubeniletan hasita, iritsi naizen final guztiak irabazi ditut», gaineratu zuen.

Olazabal, berriz, Getxokoan jabe egin zen igandean. Atzeko koadroetan Gartzia III.a lagun zuela, finala 22 eta 7 bukatu zuten Aspe eta Uriarteren aurka jokatu. Kasu honetan, alde handi samarreko markagailua izan zen eta horixe kantxako jokalarien alde ere: saketik tanto mordoska egin zizkieten Olazabal eta Gartzia, aurkariak makal samarreko eguna egokitu zitzaizkion, hauei lana erraztuz. Partidua-rekin txapela irabazi bazuten ere, jokoz ez omen zen batere ikusgarria izan.

Elgetakoan aurrera

Aitatzekoa da, bestalde, Olazabal berak, ostiralean bertan jokatu zuela Elgetako txapelketa partidua ere, eta garaipena eskuratu zuela Bellosoren aurka, 22-16 emaitzarekin. Garaipen honek, txapelketan aurrera jarraitzeko bidea ematen dio gazteari, hain zuzen ere, etzi izanen duelarik hurrengo saioa.

LEITZA ▶ HARRI-JASOTZEA

Mikel Saralegi, Zelailuzea lagun duela, finalerdietan da Urrezko Lehiaketan

Landarbide eta Zelairi, 5-2ko alde aterata, igandean Goenatxo eta Barinagarekin dute

J. ASTIBIA

Larunbatean izan zuten Urrezko Harri-jasotzailea Lehiaketan, bigarren aukera Mieltxo Saralegik eta Zelailuzek, eta baita baliatu ere, 5 eta 2ko aldeko emaitzarekin, irabazi baitzieten Landarbide eta Zelairi, Urduñan.

Saioa gogorra izan zen, ordea, bi bikoteak berdin, 2na punturekin, iritsi baitziren azken eginahalera, bina minutu-

ko denboran, 100 kiloko zilandroari 26 jasoaldi eginez, Zelai nagusitu zelarik (Zelailuzek 24 eman zizkion) eta 200 kiloko errektangularrarekin, berriz, Saralegi, 6 altxaldirekin (Landarbidek, 4). Gauzak horrela, txanda librekoan erabaki zen norgehiagoka, justu-justuan, gainera, izan ere, hiru minutu-

ko saioa izanik, Zelai eta Landarbidek, 33 jasoaldi «baleko» eman zizkieten 100 kiloko bolari (epaileek 34.a ez zieten on-

tzat eman, denborarekin larri, ez omen zutelako egoki berdindu euren ustez), eta Saralegi eta Zelailuzek, berriz, 34.

Larri ziren, beraz, bazterrak, baina, azkenean, 3. saio horretako 3 puntuari esker, Saralegi eta Zelailuzek lortu zuten finalerdirako txartela.

Horrela bada, igande honetan bertan dute jokatzekoa finalerdia, Goenatxo eta Barinagaren aurka egin behar ere, Azkoitian, 12:30etik aurrera egingen den jaialdian.

Aitatzekoa da, bikote hau, indartsu datorrela itxura guztien arabera, izan ere Atxa eta Tigrearen aurka jokatu zuten beste kanporaketan, txanda guztiak irabazita, erraz antzean gainera, aillatu baitira finalerdietara. Lehia izanen dela ziurra da eta irabaztunak Azpeitiko finalerako bidea irekita izanen du.

LEITZA ▶

Ordenadorean jostatzeko ikastaroak etzitik aurrera

J. ASTIBIA

Ordenadorean jostatzeko ikastaro trinkoak antolatuta dituzte etzi ostiralean hasi eta larunbat-igandean hauetarako eta baita 27 eta 28rako ere.

10 urtetik hasi eta 17 bitarteko gaztetxoentzat bideratutakoak, 15:30etik 19:00ak arteko ordutegia izanen omen dute saioek, Leitzako Amazabal Institutuan. Aurreneko egunean bakoitzak 70na euro ordaindu behar omen ditu. Joan nahi duenak Karrape Irratian eman behar du izena.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23

Berastegi-Elduain. Medikua: 68 33 61

Bidegoian. Medikua: 68 11 34

Ibarraldea. Osasun etx.: 672411

Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29

Irura. Osasun zentroa: 69 07 20

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Lizartza. Medikua: 68 20 77

Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larriald: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Asunzio klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

Villabona-Aiztondo.

Anbulatorioa: 00 69 70

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRIAOK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Taxia: 67 04 20

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04

▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32

▶ Ttipi ttapa ald.: 948 631888

▶ Txolarre irratia: 943 69 80 38

▶ Karrape irratia: 948 61 09 14

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Olarreaga, A. Korreo kalea 2 (Tolosa). 943 670 128

Erbiti, O. Lizarraga 7 (Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko hitza.info

Villabona-Aizt. 687 41 00 22.

villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info

Anoeta. 687 41 00 22

anoeta@tolosaldeko hitza.info

Ibarraldea. 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegaldea@tolosaldeko hitza.info

Leitza. 687 41 01 18.

leitza@tolosaldeko hitza.info

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Etxebizitza. Beasainen etxea

salgai. Deitu: 619 60 11 11.

